www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza 1, 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622 / udala@zamudiokoudala.net

2022-00768

BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, ZAMUDIOKO GAZTEENTZAKO UDAKO BIDAIA ANTOLATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKOA

I. KONTRATUAREN XEDEA

Sustatzen den kontratuaren xedea Zamudioko gazteentzako udako bidaia antolatzea da. Zamudioko Gaztestazioan egiten den UDA GAZTEA kanpainaren barruan egiten da bidaia, eta Rias Baixas (Galizia) eremua izango du helmuga.

II. KONTRATATU BEHARREKO ZERBITZUAK

- **Iraupena**

ZORTZI (8) egun eta ZAZPI (7) gau.

- **Plaza-kopurua**

EHUN ETA HOGEITA HAMAR (130) plaza.

- **Ostatuaren kategoria eta ezaugarriak**

Ostatuak (hotelak, egoitzak edo aterpetxeak), gutxienez, BI (2) IZARREKO ziurtagiria izan beharko du.

- **Erregimena**

Mantenu osoko erregimena.

- **Logelak**

Bidaiara joaten diren pertsona motak direla eta, enpresa lizitatzaileak gela anitzetan edo bikoitzetan ostatu hartzea bermatu beharko die jarduerara joaten diren gazteei, gehienez 130 pertsona gazterekin eta 10 laguntzaile/begiralerekin gela bikoitzetan.

Gela guztiek (bikoitzek eta anitzek) bainugela edo dutxa, komuna eta konketa, ur beroa, aire girotua eta berogailua izan beharko dituzte.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE ORGANIZACIÓN DEL VIAJE DE VERANO PARA JÓVENES DE ZAMUDIO

I. OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que se promueve tiene por objeto la organización del viaje de verano para jóvenes de Zamudio, el cual se desarrolla dentro de la campaña UDA GAZTEA que se realiza en la Gaztestazioa de Zamudio, y que tendrá como destino la zona de las Rias Baixas (Galicia).

II. SERVICIOS A CONTRATAR

- **Duración**

OCHO (8) días y SIETE (7) noches.

- **Total de plazas**

CIENTO TREINTA (130) plazas.

- **Categoría del alojamiento y características**

El alojamiento (hotel, residencia o albergue) deberá de disponer, como mínimo, de la certificación de DOS (2) ESTRELLAS.

- **Régimen**

Régimen de pensión completa.

- **Habitaciones**

Debido al tipo de personas que acuden al viaje, la empresa licitadora deberá garantizar el alojamiento en habitaciones múltiples o dobles para las personas jóvenes que acuden a la actividad, con un máximo de 130 personas jóvenes y 10 personas acompañantes/ monitores en habitaciones dobles.

Todas las habitaciones (dobles y múltiples) deberán disponer de instalación de baño o ducha, inodoro y lavabo, agua caliente, aire acondicionado y calefacción.

- **Jarduerak**

Enpresa lizitatzaileak eguneko jarduera-programa bat aurkeztu beharko du, bidaiara joaten diren pertsonen adinera egokitua (13-17 urte). Jarduerak mota honetakoak izango dira:

1. Rafting, kanoak edo kayak.
2. Abentura anitzeko parkerako irteera eta turismo aktiboa.
3. Hurbileko museoak bisitatzea.
4. Bisita gidatuak Pontevedra, O Grove, Santiago de Compostela eta Vigora.
5. Paintball.
6. Karting.

- **Garraioak eta joan-etorriak**

Joan-etorriko bidaia autobusez helmugara.

Zamudioko Udalak aukeratuko du zein izango den autobusen irten eta heltzeko lekua, eta jardueraren onuradunek behar duten irisgarritasuna eta segurtasuna kontuan izanda.

Eskaintzan aurkeztutako autobus guztiek honako zerbitzu hauek izan beharko dituzte:

- Komuna.
- Aire egokitua-aire girotua.
- Jesarleku etzangarriak.
- Ikus-entzunezko baliabideak, bidaian bidaiarien erosotasuna areagotzeko.
- Bidaiarientzako gerrikoak.

Eskaintzan aurkeztutako autoek gehienez bost urteko antzinatasuna izan beharko dute. Beharrezkoa izanez gero, enpresa lizitatzaileak mugikortasun urriko pertsonentzako tokiak dituen autobus baten aukera aurkeztu beharko du.

Eskainitako autobusetan aldaketaren bat egin behar izanez gero, aldaketa hori bidezkotzat joko da bakar-bakarrik gerora kontratistari egotzi ezin zaizkion gorabeherengatik egin behar bada; kontratuaren arduradunari jakinarazi beharko zaizkio gorabehera horiek, ordezkoen agiriekin batera, garaiz, eta, edozein kasutan, bidaia hasi baino lehen.

- **Actividades**

La empresa licitadora deberá de presentar un programa diario de actividades adecuado a la edad de las personas que acuden al viaje (13-17 años), que deberán ser, como mínimo, las siguientes:

1. Rafting, canoas o kayak.
2. Salida a parque multiaventura y turismo activo.
3. Visitas a museos cercanos.
4. Visitas guiadas a Pontevedra, O Grove, Santiago de Compostela y Vigo.
5. Paintball.
6. Karting.

- **Transportes y desplazamientos**

Viaje de ida y vuelta en autobús al punto de destino.

El punto de salida y de llegada de los autobuses será el establecido por el Ayuntamiento de Zamudio atendiendo a criterios de accesibilidad y seguridad para las personas beneficiarias de la actividad.

Todos los autobuses presentados en la oferta deberán estar dotados de las siguientes prestaciones:

- WC.
- Aire acondicionado-climatización.
- Asientos reclinables.
- Medios audiovisuales orientados al confort del pasajero durante el viaje.
- Cinturones para pasajeros.

Los autocares presentados en la oferta deberán tener una antigüedad no superior a cinco años. En caso de ser necesario, la empresa licitadora deberá presentar la opción de un autobús con plazas para personas de movilidad reducida.

En caso de que se tuviera que producir un cambio sobre los ofertados, éste sólo será procedente por circunstancias sobrevenidas no imputables al contratista y que deberán ser puestas en conocimiento del responsable del contrato, conjuntamente con la documentación de los sustitutos, con la antelación suficiente y, en todo caso, antes del inicio del viaje.

Ezein kasutan ezin erabiliko da mikrobusik edo antzekorik. Eskaintzarekin aurkezten den autobus-zerrenda ere ezin aldatuko da, salbu eta behar bezala justifikaturik badago matxura edo ezbehar baten ondorioz; kasu horretan, ezaugarri berdinak dituzten beste batzuk hartuko dira, haien ordez.

En ningún caso se podrán utilizar microbuses o similares. Tampoco se podrá cambiar la relación de autobuses que se presente con la oferta, salvo que esté debidamente justificado por avería o siniestro, en cuyo caso se sustituirán por otros de iguales características.

Autobusak behar bezala identifikaturik eta ezagutzeko moduan joango dira, aurreko beiran kartela jarrita, helburua, zenbakia eta Udalaren logoa adierazita bertan, enpresa adjudikaziodunari gerora emango zaizkion zehaztapen teknikoen arabera.

Los autobuses irán debidamente identificados y visibles con un cartel en la luna delantera indicando destino, número y el logo del Ayuntamiento, según las especificaciones técnicas que serán suministradas posteriormente a la empresa adjudicataria.

Enpresa adjudikaziodunak bermatuko du autobus-zerbitzua eskuragarri egongo dela oporren helburura joateko eta handik itzultzeko bidaietarako. Zerbitzu hori aipatzean ulertuko da autobus guztiak eta haiek gidatzeko ardura duten gidariak izango direla eskura (arauzko geldiune eta atsedenaldiak eginik, beraz).

La empresa adjudicataria garantizará la disponibilidad del servicio de autocar para los desplazamientos de ida y vuelta al destino vacacional. Por este servicio se entiende tanto la disponibilidad de todos los autobuses como de los chóferes responsables de su conducción (por tanto, habiendo efectuado oportunamente sus pausas y descansos reglamentarios).

III. ESKAINTZARI ERANTSI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Administrazio Klausula Berezien Pleguan eskatzen diren gainerako agiriekin batera, hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Kontratuaren helburua den zerbitzua antolatzeko eta emateko proiektua; bertan hauek zehaztu beharko dira:
    - Bidaiaren deskribapen zehatza.
    - Ostatuaren deskribapena, kategoria eta ezaugarri teknikoak (instalazioak).
    - 8 eguneko egonaldian egingo diren jardueren programa, bidaiara joaten diren gazteentzako helmugak eta jarduera-motak xehatuz.
- Autobusen ezaugarri teknikoak: nahitaezkoa den erantzukizun zibileko asegurua eta bidaiarien asegurua,

III. DOCUMENTACIÓN A ADJUNTAR EN LA OFERTA

Junto con el resto de documentación que se requiera en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, deberá presentarse:

- Proyecto de organización y ejecución del servicio objeto del contrato, que deberá contener:
    - Descripción detallada del viaje.
    - Descripción del alojamiento, categoría y características técnicas (instalaciones).
    - Programa de actividades a realizar durante la estancia de 8 días, especificando los destinos y tipos de actividades para los/las jóvenes que acudan al viaje.
- Características técnicas de los autobuses: seguro obligatorio de responsabilidad civil, así como de personas viajeras en vigor.

indarrean egon beharrekoak.

- Idatziz adieraztea, ostatuaren zigilu eta guzti, eskaintza aurkezten den unean ostatuaren logelen erreserba gordeta dagoela. Dagozkion egiaztagiriak erantsi beharko dira, erreserba gorde den eguna bertan adierazita.

- Justificante escrito, con sello del propio alojamiento, de disponer del bloqueo de las habitaciones en dicho establecimiento en el momento de presentar la oferta, adjuntando los correspondientes documentos justificativos, donde figure la fecha de realización.

IV. KONTRATATUTAKO BIDAIALDIA

ZORTZI (8) egun natural eta ZAZPI (7) gau, eta txanda bakar batean egin beharko da parte-hartzaile guztientzat (gehienez 130 pertsona). Irteera 2022ko uztailaren 4an izango da eta itzulera 2022ko uztailaren 11n.

IV. PLAZO DEL VIAJE CONTRATADO

OCHO (8) días naturales y SIETE (7) noches, que deberá desarrollarse en un único turno para todas las personas asistentes (máximo 130 personas). La salida tendrá lugar el día 4 de julio de 2022 y el regreso el día 11 de julio del 2022.

V. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Zamudioko Udaleko kultura-teknikaria izango da kontratuaren arduraduna.

V. RESPONSABLE DEL CONTRATO

Actuará como responsable del contrato el Técnico de Cultura del Ayuntamiento de Zamudio.

VI. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

a) Arau hauste oso larritzat joko da:

1.- Jarduerara doazen pertsonekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik egonaldiko egunak gutxitzea.

2.- Eskainitako ostatuaren kalitatea ez betetzea, eskainitakoak baino izar gutxiago dituelako.

3.- Bidaiari guztiei toki bakarrean ostatu eman ezin izatea.

4.- Ostatuko egonaldian egun baten edo gehiagotan ez izatea kontrataturiko mantenu osoko erregimena.

5.- Autobusa helmugara ez heltzea.

6.- Eskainitako autobusek pleguan adierazitako gutxieneko ezaugarriak ez betetzea.

VI. INFRACCIONES Y SANCIONES

a) Se consideran infracciones:

1.- Reducción de los días de estancia por motivos ajenos a las personas asistentes a la actividad.

2.- Incumplimiento de la calidad del alojamiento ofertado por tener menos estrellas de las ofertadas.

3.- No poder alojar a toda la expedición en un solo alojamiento.

4.- No contar con el régimen de pensión completa contratado en 1 o más días durante la estancia en el alojamiento.

5.- Que el autobús no llegue al punto de destino.

6.- Que los autobuses ofertados no cumplan las características mínimas señaladas en el presente Pliego.

7.- Enpresa esleipendunak egonlekuan bertan kobratzea lizitazio prezioan sartutako jardueraren bat.

8.- Eskaintzan proposatutako jarduerak ez egitea, baldin eta arrazoi justifikaturik ez badago eta kontratuaren arduradunari behar besteko aurrerapenarekin jakinarazi ez bazaio.

b) Zigorrak

Deskribatutako arau-hausteren bat eginez gero, kontratuaren prezioaren (BEZik gabe) % 10erainoko zehapena ezarriko da, larritasunaren arabera.

7.- Que la empresa adjudicataria cobre en el lugar de estancia alguna actividad señalada en la licitación como incluida en el precio.

8.- La no realización de las actividades propuestas en su oferta, siempre y cuando no exista razón justificada y comunicada con la antelación suficiente al responsable del contrato.

b) Sanciones

La comisión de alguna de las infracciones descritas conllevará la imposición de una sanción de hasta un 10% del precio del contrato (IVA excluido), en función de la gravedad.

ZAMUDIOKO UDALEKO KIROL ETA KULTUR TEKNIKARIA
TÉCNICO DE CULTURA Y DEPORTES DEL AYUNTAMIENTO DE ZAMUDIO